

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA
Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko 2.65 OA antolamendu-eremuko OR-9-3 etxadiko 3, 4, 5, 6, 18 eta 19 lurzatieen xehetasun-azterketari

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko uztailaren 3an egindako ohiko bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen:

1. Hasierako onespena ematea honako hauei dagokien xehetasun-azterketari: Gasteizko 2.65 OA antolamendu-eremuko OR-9-3 etxadiko 3, 4, 5, 6, 18 eta 19 lurzatiak; J. B. M. eta L. Z. Fde B. arkitektoek idatzi dute, Eguilazmendi SL sozietateak eskatuta, espedientean jasota dagoen proiektuaren arabera. Hala ere, behin betiko onetsi aurretik, dokumentazio berria aurkeztu beharko da paperean eta CD formatuan, 2026ko ekainaren 19ko txosten tekniko eta juridikoan adierazitako zuzenketekin.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikulua arabera, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren nahitaezko txosten loteslea jaso ezean, eten egingo da behin betiko onesteko epea.

3. Dosierra jendaurrean jartzea, hogeit egunez, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, eragiten diela uste duten guztiek aztertu ahal izan dezaten eta egoki deritzeten alegazioak eta oharra egin ahal izan ditzaten epe horretan.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25—, adierazitako epean, ALHAOn argitaratzen denetik.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko uztailaren 3an

Alkate-lehendakaria
MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA